




2023ko Jolastokietako jaietako apar festa.  JOLASTOKIETAKO JAIK

Jolastokieta, jai giroan murgiltzeko prest

Azken urteotako egitaraua gehiegi aldatu gabe, baina beti bezain gogotsu eta ilusionatuta, hemen dira Jolastokietako jaiak. Astelehenean hasiko dira motorrak berotzen, eta, ostegunetik aurrera, festa izango da nagusi Altzako auzunean.

✦ Beñat Parra Rodriguez

Auzo handia da Altza, auzune ugari dituena, eta, horrekin batera, baita jai ugari dituena ere. Larratxokoak, Herreraoak, Buenavistakoak eta Oletakoak ospatu zituzten ekainean, sanmartzialak ekaina eta uztaila artean eta Jolastokietakoak lehertzeaz dira orain.

Miguel Angel Diez auzotarra 1980ko hamarkadatik dabil jaien an-

tolaketan eta sustapenean buru-belarri, eta dagoeneko duela bi urte, jai batzordea uzteko asmoa agertu zuen, «belaunaldi erreleboa sustatzeko». Ordea, iaz ibili zen jaien antolaketan, baita aurten ere: «Ez da erraza izaten ari lan boluntarioa egingo duen jende berria aurkitzea, eta momentuz jarraitzen dut jaien antolaketan». Era berean, aitortu du gustura

aritzen dela jaien antolaketan: «1980 ingurutik nabil Altzako bizilagunen elkartean, eta jaien antolaketan 1986tik. Nire onena eman dut beti jaiak antolatzeko». «Sei pertsona gaude batzordean modu finkoan, baina lagun, senide eta bizilagun askoren laguntza eta babesa dugu, noski», gehitu du. Horrela, aurten ere, Diez izan da jaien nondik norakoak azaldu dizkiguna.

Berritasun batzuk

Ez dira asko, baina berritasun batzuk badakartzate Jolastokietako jaiak aurten, jai batzordeko kideak azaldu duenez: «DJ desberdinak ditugu aurten: Gorka Beat ostiralean eta Eto larunbatean. Bestalde, igandean, kultur etxearen XXXVIII. urteurrena ospatuko dugun egunean, herri kirolen erakustaldia izango dugu ohiko legez, baina aurtengo kirolariak beste batzuk izango dira. Horrez gain, haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu dugu, hurrengo urteko jaietako egitarauko azala aukeratzeko».

Berritasun horiez guztiez gain,

beste bat nabarmendu du Diezek: «Manuela ile apaindegiaren eskutik, haur eta gaztetxoek ilean hainbat koloretako metxak egiteko aukera izango dute igande goizean».

Jolastokietan, jai gehienetan egiten duten moduan, haur, gazte zein helduentzako jarduerak antolatzen dituzte, jaiak auzotar guztientzat izan daitezten: «Haurrentzako, adibidez, Haurren Eguna antolatzen dugu, gure zinta lasterketa tradizionalarekin, puzgarriekin, apar festarekin eta beste jarduera askorekin. Gustu guztientzako eskaintza izaten dugu», nabarmendu du Diezek.

Diezek altzatar zein donostiar guztiak animatu ditu Jolastokietako jaietara gerturatzerara, ondo pasatzea ziurtatuta dagoelako

Horrela, berritasunak berritasun, «urteroko ildoari» jarraitu diote aurten go egitaraua osatzeko, Diezen hitzetan. Hain zuzen ere, jarduera arrakastatsuenak mantendu dituzte la azaldu du auzotarrak: «Txokolate jan handiak oso ondo funtzionatzen du, eta gaztetxoek parranda gustatzen zaienez, erraldoi eta buruhandietan ere askok hartzen dute parte. Bestalde, nabarmendu behar da aurten haurren danborrada ordez, familia antolatu dugula, gurasoen parte hartzea sustatzeko».

Denontzako jaiak

Diezek altzatar zein donostiar guztiak animatu ditu Jolastokietako jaietara gerturatzerara, ondo pasatzea ziurtatuta dagoela nabarmendu baitu. Hala ere, mezu argi bat helarazi dio joatekoa den orori: «Sozializatzeko modu bat da, eta espero dut auzo guztiak hartzea parte jaietan, ondo pasatu dezagun. Eta, beti bezala, elkar errespetatzea nahi dugu, jaiak denontzako berdinak izatea, denon artean jai ahalik eta hobeak egiteko». ●



ASTELEHENA 9 ASTEARTEA 10

17:30

Azken prestatze lanak jaiak ondo bideratzeko. Edonoren laguntza ongietorria izango da.

18:00 · Jolastokietako pilotakeluan

XV. Pala eta Eskuzko Txapelketa.

ASTEAZKENA 11

18:00 · Jolastokietako pilotakeluan

Miguel Baztanen oroimenezko XXXI. Futbol Txapelketa. Hiru hiruren aurka.

19:30

Kuadrillen arteko futbito txapelketa.

OSTEGUNA 12

17:30

3x3 saskibaloia.

18:30

Kale antzerkia:
Ipurbeltz - Zozoak Beleari.

18:35

Argazki lehiaketa. Irailaren 29ra arte. Argazkiak jai batzordeari eman 21:00ak baino lehen. (Hiru argazki parte hartzaile bakoitzeko). Gaia: jaien ingurukoa

OSTIRALA 13

17:45

Suziriak, jaiari hasiera emateko.

18:00 · Jolastokietako eskolan

Karate erakustaldia (hainbat gerriko).

19:15

Erraldoi eta buruhandien irteera Ttirriki Ttarraka musika eskola elkarteko trikitiarekin girotuta.

19:30

Kuadrillen arteko txapelketaren finalerdiak.

20:00

Pregoi kontzertua: Pasai txaranga.

20:30

Sardina jate herrikoia (Sardinak, ogia eta ardoa).

22:30-02:30

Dantzaldia: Gorka Beat DJ-a.

LARUNBATA 14

Haurren eguna

09:00

Diana Ttirriki Ttarraka musika eskola elkarteko trikitiaren eskutik.

10:15

Malabarismoa.

10:30

Ping-pong txapelketa.

Babeslea: Jolastokieta okindegia (izen ematea kultur etxean).

10:35

Xingola lasterketa bizikletan.

(Herrikoa, neska-mutilen artekoa eta maila desberdinak).

11:00

Oinezkoen lasterketa.

(Herrikoa, neska-mutilen artekoa eta maila desberdinak).

11:15 · Bertsolari Txirrita plazan eta Harrobieta plazan

Haur parkea.

13:00

Apar festa.

13:30

Poteoa, (hori bai, auzoan).

Ttiriki Ttarraka musika eskola elkarteko trikitilariak girotuta.

16:05 · Joserra tabernan

Tute txapelketa finalak.

17:00

Haur danborrada,

Pasai txarangarekin girotuta.

18:00

Pala finalak.

18:30

Txokolate galleta eta bizkotxo janaldi aparta.

19:15

Erraldoi eta buruhandien irteera, Ttiriki Ttarraka musika eskola elkarteko trikitilariak girotuta.

21:30

Herri afaria (zizka-mizkak, saihetsa, entsalada, ogia, ardoa eta postrea).

22:30-03:00

Dantzaldia: Eto DJ-a.

01:00

Zezensuzkoa.



02:30

Baratzuri zopa bizirik dirautenentzat eta zenbait ezusteko ondoren.

IGANDEA 15

09:00

Diana Ttiriki Ttarraka musika eskola elkarteko trikitilarien eskutik.

10:00

XXXVII. «Jolastokieta» Lasterketa Herrikoa. Jose M. Villarren oroimenezko XVII. edizioa.

10:30

Toka txapelketa (gizonak eta emakumeak bereizita).

10:30

Pote txapelketa (gizonak eta emakumeak bereizita).

11:30

Manuela ile apaindegiaren kolorezko metxak.

11:45

Luntxa erretiratuentzat.

12:00

Arrautzopil lehiaketa.

Osagaiak: patata, arrautza, tipula, gatza eta olioak.
(Saria: bi lagunentzako bazkaria Next jatetxean).

Azkenburuko (Postre) Lehiaketa.

Osagaiak: nork bere gogoak ematen dionarekin prestatuak.
(Saria: bi lagunentzako bazkaria Next jatetxean).

12:05 · Jolastokieta pilotalekuan

Herri Kirolak:

Aizkolariak: Manuel Cañamares eta Bea Tanco.

Harri jasotzailea: Imanol Royo Lartain.

Esataria: Jose Angel Ibarra Sarasola.

12:15

Marrazki Lehiaketa

(Lan irabazlea 2025eko jaietako egitarauaren azala izango da).

13:00

Poteoa Ttiriki Ttarraka musika eskola elkarteko trikitilariak girotuta.

13:15

Sari banaketa.

16:00 · Caballero tabernan

Mus Txapelketaren finalak.

17:30

Smoke Screen eskolaren erakustaldia (Jolastokieta Taldea).

18:00

Sagardo eguna. Juanjo Matxinandiarenaren oroimenezko IX. edizioa.

Sagardotegiak: Gurutzeta, Petritegi, Aburuza eta Bereziartua.

18:30

Groseko erraldioen eta buruhandien irteera, Donostiako musika eskolako trikitilariak girotuta.

19:30

Diskoteka ibiltaria.

20:00

Zezensuzkoa.

20:30

Azken traka eta jai amaiera.